II.- Esleipendun gertatuz gero, aipatutako lanak onetsitako baldintza pleguetan zehazten diren baldintzen arabera eta espedientearen zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko ditu beti. Era berean, bere

II.- Que, en caso de resultar adjudicatario, realizará los citados trabajos con sujeción en todo caso a los requisitos y condiciones dispuestos en el pliego aprobado, así como al resto de las condiciones facultativas fijadas en



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

onespena ematen du kontratuaren lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte.

el expediente. Además, manifiesta su conformidad en dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución del contrato, hasta su finalización.

III.- Lanaren, zergen eta gizarte-segurantzaren esparruetan onartuta dauden legeak eta arauak betetzera behartzen dut neure burua.

III.- Se obliga a cumplir las leyes y normas aprobadas en materia de trabajo, tributaria y seguridad social.

IV.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako hitzarmena kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

IV.- Que manifiesta expresamente haber tenido en cuenta en la elaboración de la oferta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, en particular los convenios colectivos de aquellos sectores de actividad que resulten de aplicación en Gipuzkoa, y de protección del medio ambiente.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela:
.....

A estos efectos, señala que el convenio colectivo de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en caso de resultar adjudicatario,, es el siguiente

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiek aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

Igualmente se obliga a facilitar al órgano de contratación cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.

V.- **Konpromisoa hartzen dut aipatu lana ondoko prezioan egiteko, prezioan kontzeptu guztiak sartzen direla kontuan hartuta, edozein**

V.- **Que me comprometo a su ejecución por el siguiente precio, debiendo entenderse comprendidos en el precio todos los conceptos incluyendo los impuestos, gastos, tasas y**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

zerga esperaren zergak, gastuak, tasak eta arbitrioak, baita enpresariaren irabazi industrialak ere,€ urtean, horietatik€ printzipalari dagozkio eta€ BEZari.

arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el beneficio industrial de la empresa contratada, en la cantidad de€ por año, de los que€ corresponden al principal y€ al IVA.

VI.- Konpromisoa hartzen dut aipatu zerbitzua exekutatzeke epea astetan murriztea.

VI.- Que me comprometo a reducir el plazo de ejecución del servicio en semanas.

Tokia, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA.

Lugar, fecha y firma. EL/LA LICITADOR/A.

Kasu batean ere ez dira sartu behar artxibo elektroniko honetan memoria teknikoa, lan programa edo esleipen-irizpideei dagozkien beste edozein datu, horien balorazioa balio irizpen baten menpe baitago, eta horiek B artxibo elektronikoan sartu behar baitira.

En ningún caso deben de incluirse en el presente archivo electrónico la memoria técnica, el programa de trabajo, o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor y que deberán incluirse en el archivo electrónico B.

Datu horietako edozein sartuz gero C artxibo elektronikoan, ez dira balioetsiko agiriok; beraz, era automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio batuko.

La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo electrónico C supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se le asignarán los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación cuantificables de forma automática.

13. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

EPAIMAHAIBURUA:

Azkoitiko udaleko Alkate-Lehendakaria, edo

13. MESA DE CONTRATACIÓN

La Mesa de Contratación estará integrada del siguiente modo:

PRESIDENTE:

El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Azkoitia o el concejal en quien delegue.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

bere ordezeko zinegotzia.

BOKALAK:

- Udal Idazkaria edo bere ordezeko funtzionarioa.
- Udal Kontu-hartzailea edo bere ordezeko funtzionarioa
- Kontratazio arloko AOT edo bere ordezeko funtzionarioa

IDAZKARIA:

Kontratazio arloko A.O.T. edo horren ordezeko funtzionarioa.

Halaber, udal teknikari guztiek parte hartu ahal izango dute Kontratazio Mahaian, baldin eta Mahaia, aholkularitza lanak egiteko, horien parte hartzea eskatzen bada.

Kontratazio Mahaia osaketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio-organoak hartzen dituen ebazpenak exekutiboak izango dira, dagokion Auzi Organoaren aurrean kontratistak duen aurkaratzeko eskubidearen kalterik gabe.

14. AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea iragan ondoren, Kontratazio-mahaia lizitatzailerik A artxibo elektronikoan aurkeztutako dokumentazio orokorra kalifikatuko du, publikoa izango ez den bilkuran, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 141. artikuluan adierazten dena jarraiki.

VOCAL:

- La Secretaría del Ayuntamiento o funcionario/a en quien delegue.
- La Interventora del Ayuntamiento o funcionario/a en quien delegue.
- La TAG de Contratación o funcionario/a en quien delegue

SECRETARIA:

T.A.G Contratación o funcionario en quien delegue.

Podrán asistir, además, todos/as aquellos/as técnicos/as municipales cuya presencia sea solicitada por la Mesa para ejercer labores de asesoramiento.

La composición de la Mesa de Contratación se publicará en el perfil de contratante.

Las resoluciones que adopte el órgano de contratación serán inmediatamente ejecutivas, sin perjuicio del derecho de impugnación que tiene el contratista ante el órgano judicial correspondiente.

14. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES

Una vez vencido el plazo de presentación de las proposiciones, la Mesa de Contratación procederá a la calificación de la documentación general presentada por los licitadores en el archivo electrónico A, en sesión cerrada al público, procediendo para ello conforme al artículo 141 de la Ley de Contratos del Sector



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Público.

Horretarako, Araudiaren 22. Artikuluak xedaturikoarekin bat, lizitatzailleen kontratatze gaitasunari eta kaudimenari buruzko argibideak edota agiri osagarriak eskatu ahal izango dira. Agiri horiek bost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Mahaiak helbide elektronikoko bidez emango die argibideen edota informazio osagarriaren eskaeraren berri.

A tal efecto, podrán pedirse aclaraciones o documentos complementarios sobre la capacidad y solvencia para contratar de las empresas licitadoras que habrán de aportarse, tal y como establece el artículo 22 del Reglamento, en el plazo de cinco días naturales. La solicitud de aclaraciones o información complementaria será comunicada por la Mesa mediante correo electrónico a los interesados.

B artxibo elektronikoa ireki aurretik, Mahaiak ondokoa egiaztatuko du: lizitatzailleek A artxibo elektronikoa aurkeztu dituzten dokumentuak behar den moduan izenpetuta daudela eta formaren ikuspegitik eta ikuspegi materialetik ere, legez eta araudiz aplikagarri diren arauak xedaturikoa ere betetzen dutela.

Previo a la apertura del archivo electrónico B, la Mesa comprobará que los documentos presentados por los licitadores dentro del archivo electrónico A, están válidamente firmados y cumplen desde el punto de vista formal y también material, con lo exigido por las normas legales y reglamentarias que son de aplicación.

Kontratazio Mahaiak aurkeztutako agiritan hutsegite materialak daudela ikusten badu, posta elektronikoa erabiliz jakinaraziko die interesatuei, eta 3 lanegun baino gehiagokoa izango ez den epea emango du, lizitatzailleek akatsak zuzen ditzaten. Dokumentazioak zuzendu ezin daitezkeen akats nabarmenak edo hutsegite materialak badituzte, proposamena baztertu egingo da.

Si la Mesa observare defectos materiales en los documentos presentados, lo comunicará por correo electrónico a los interesados, concediendo un plazo no superior a 3 días hábiles para que subsanen el error. Si la documentación contiene defectos sustanciales o deficiencias materiales no subsanables, se rechazará la proposición.

Kontratazio-mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikulua aipatzen duten dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, egokituz gero, aurkeztutako dokumentazioan atzemandako akatsak edo hutsegiteak zuzendu ondoren, HAKLAOko 11. artikulua aipatzen dituen hautapen-irizpideak betetzen dituzten enpresak

La Mesa de Contratación, una vez calificada la documentación a la que se refiere el artículo 140 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones de la documentación presentada, procederá a determinar las empresas que se ajusten a los



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

zein diren zehaztuko ditu, eta berariaz esango du lizitazioan zein onartu diren, eta zein eta baztertzearen arrazoiak.

criterios de selección a que hace referencia el artículo 11 del RGLCAP, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación y los rechazados de la misma, así como sobre las causas de rechazo.

Jarraian, ahal bada egintza berean, Kontratazio-mahaiak "B" artxibo elektronikoak irekiko ditu eta horiek balioetsiko dituen teknikariari igorriko zaizkio. Horrek balorazio-txostena, proposamen ekonomikoak jendaurrean ireki aurretik bidali beharko du.

A continuación, si cabe en el mismo acto, la Mesa de Contratación procederá a la apertura del archivo electrónico "B" y las remitirá a la persona técnica encargada de realizar la valoración, que deberá devolver el informe de valoración antes de la apertura pública de la proposición económica.

Azkenean, Kontratazio-mahaiak Kontratugilearen Profilean eta onartutako lizitatzailerei bidalitako komunikazioan adierazitako leku, egun eta orduan "C" artxibo elektroniko irekiko du jendaurrean; hau da, proposamen ekonomikoaren inguruko dokumentazioa daukana. Proposamen ekonomikoak irakurri ondoren, mahaiak haien puntuazioa egingo du, plegu honetan esleitzeko adierazitako irizpidearen bidez.

Finalmente, la Mesa de Contratación abrirá el archivo electrónico "C", es decir, el archivo electrónico que contiene la documentación sobre la proposición económica, en acto público desarrollado en el lugar, día y hora indicados en el Perfil del Contratante y en la comunicación que se curse a las empresas licitadoras admitidas. La Mesa puntuará las proposiciones económicas una vez las haya leído, según los criterios de adjudicación indicados en este pliego.

Proposamenak balioestean, plegu honetako 16. klausulan azaldutako esleipen-irizpideak kontuan hartuko dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 145. eta 146. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

A la hora de valorar las ofertas, se tendrán en cuenta los criterios de adjudicación recogidos en la cláusula 16 de este pliego, según lo dispuesto en los artículos 145 y 146 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Txosten teknikoak ikusita, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari esleitzeko proposamena luzatuko dio. Esleitze-irizpideak aurkeztu diren proposamenetan aplikatzearen ondorioz lortutako emaitza, akta, esleipen-proposamenarekin batera eskuratutako dokumentazioa eta bidezkotzat jotako

Vistos los informes técnicos, la Mesa de Contratación efectuará al órgano de contratación su propuesta de adjudicación. La Mesa de Contratación hará llegar al Órgano de Contratación el resultado de aplicar los criterios de adjudicación a las proposiciones presentadas, el acta, la documentación recabada junto con la propuesta de



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

oharpenak helaraziko dizkio Kontratazio-
mahaia Kontratazio-organoari.

adjudicación y todas las observaciones que se
consideren oportunas.

Proposamen hauek ez dira onartuko:

No se aceptarán las siguientes propuestas:

- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-haustea direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak.
- Aztertutako eta onartutako agiriekin loturarik ez dutenak.
- Gehieneko lizitazio-prezioa gainditzen dutenak.
- Eskaintza ekonomikoan ageriko akatsa dutenak.
- Erabakitako eredia funtsean aldatzen dutenak.
- BEZ egokia aplikatzen ez duten eskaintzak, beste tasa bat aplikatzen dutenak eta kontratuaren xedea betetzeko zerbitzu guztiak berruan hartzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.
- Datarik ez dutenak, hala nola enpresaren lege-ordezkararen ahalordea duen pertsonaren sinadurarik ez dutenak, salbu eta, ordezkaria edo pertsona ahalordedun bat duten eskaintzen kasuan, ekitaldia hasi eta berehala sinatzen bada, betiere hori edozein eskaintza ekonomiko irakurri ondoren eginez gero.

- Las que contengan contradicciones, omisiones, errores o infracciones que impidan al Ayuntamiento conocer con meridiana claridad aquellos aspectos que considere fundamentales para la consideración de la oferta.
- Las que no sean coherentes con la documentación examinada y aprobada.
- Las que superen el precio máximo de licitación.
- Las que comporten error manifiesto en la oferta económica.
- Las que varíen sustancialmente el modelo establecido.
- Las ofertas que no apliquen el IVA correspondiente, las que apliquen otra tasa o las que no integren todas las prestaciones para el objeto del contrato serán automáticamente rechazadas.
- Las que no cuenten con fecha y las que no dispongan de la firma de la persona con poder del representante legal de la empresa, salvo, en los casos en que se trate de ofertas con representante o persona con poder, cuando se firme inmediatamente después de la apertura del acto, siempre y cuando esto se realice antes de la lectura de cualquier oferta económica.

Kontratazio-organoak bi erabaki hauetako bat hartzeko ahalmena izango du: kontratua kalitate-prezio onenaren arabera esleitzea, plegu honetako esleipen-irizpideak aplikatuz eta haren balio ekonomikoari ezinbestean kasurik egin behar izan gabe; edo hutsik, esleipenik gabe utz dezake lizitazioa, betiere erabakia

El Órgano de Contratación podrá decidir entre estas dos opciones: adjudicar el contrato en base a la mejor relación calidad-precio, aplicando los criterios de adjudicación recogidos en este pliego y sin tener que tomar forzosamente en consideración su valor económico; o declarar desierta la licitación, sin



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

esleipenerako irizpide horien arabera adjudicar, justificando siempre su decisión en base a los criterios mencionados.

Esleipen-proposamenak ez du La propuesta de adjudicación no supondrá ningún derecho del licitador propuesto ante la Administración. No obstante, si el Órgano de Contratación no adjudicara el contrato en base a la propuesta realizada, deberá justificar su decisión.

15. ANORMALKI BAXUAK DIREN ESKAINTZAK

15. OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS

Ez da bidezkoa izango esleipena egitea eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailari, baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratazio-organoak ondo oinarritutako arrazoiak baditu pentsatzeko proposamena ezingo dela bete, ohiz kanpoko balio baxuak jasotzen dituelako.

No procederá la adjudicación al licitador que realice la mejor oferta si el Órgano de Contratación, basándose en lo dispuesto por el artículo 149 de la Ley de Contratos del Sector Público, tuviera razones fundadas para considerar que la propuesta no se podrá ejecutar por contener valores anormalmente bajas.

Kontratu honetan anormaltasun-presuntzioko beherapenik dagoen ikusteko, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 85. Artikuluak ezartzen dituen irizpideak erabiliko dira.

Los criterios para la apreciación de baja sen presunción de anormalidad en este contrato son los que se contemplan en el artículo 85 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak anormaltasun presuntzioan egindako eskaintza bat edo batzuk identifikatuko balitu, haiek aurkeztutako lizitatzailari edo lizitatzailaeei eskatu beharko dizkie, betiere behar besteko epea emanda, arrazoiez eta xehetasunez justifikatzeko eta banakatzeko prezioen edo kostuen edo beste edozein parametroren maila baxua, oinarri izan direnak eskaintzaren ezohikotasuna definitzerakoan, horretarako beharrezkoak diren

Cuando la mesa de contratación, o en su defecto el órgano de contratación hubiere identificado una o varias ofertas incursas en presunción de anormalidad, deberá requerir al licitador o licitadores que las hubieren presentado dándoles plazo suficiente para que justifiquen y desglosen razonada y detalladamente el bajo nivel de precios, o de costes, o cualquier otro parámetro en base al cual se haya definido la anormalidad de la oferta, mediante la presentación de aquella



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

informazioa eta agiriak aurkeztearen bidez.

información y documentos que resulten pertinentes a estos efectos.

Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak lizitatzailari zuzenduko dion informazio eskaera argi eta garbi adierazi beharko da, lizitatzaila edo lizitatzailak eskaintzaren bideragarritasuna osoki eta behar bezala justifikatzeko egoeran izan daitezen.

La petición de información que la mesa de contratación o, en su defecto, el órgano de contratación dirija al licitador deberá formularse con claridad de manera que estos estén en condiciones de justificar plena y oportunamente la viabilidad de la oferta.

Zehatz esanda, kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak justifikagarriak eska diezazkieke lizitatzaille horiei eskaintzaren baldintzei buruz, berorren prezio edo kostuen maila baxua zehazteko modukoak badira eta, bereziki, honako balore hauei dagokienean:

Concretamente, la mesa de contratación o en su defecto el órgano de contratación podrá pedir justificación a estos licitadores sobre aquellas condiciones de la oferta que sean susceptibles de determinar el bajo nivel del precio o costes de la misma y, en particular, en lo que se refiere a los siguientes valores:

a) Fabrikatzeko prozeduraren, emandako zerbitzuen edo eraikuntzako metodoaren bidez zenbat aurrezten den.

a) El ahorro que permita el procedimiento de fabricación, los servicios prestados o el método de construcción.

b) Zer soluzio tekniko hautatu dituen eta produktuen hornikuntza egiteko, zerbitzuak emateko edo lanak egiteko zein baldintza dituen bereziki aldekoak.

b) Las soluciones técnicas adoptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que disponga para suministrar los productos, prestar los servicios o ejecutar las obras,

c) Zein den produktuen hornikuntza egiteko, zerbitzuak emateko edo lanak egiteko proposatutako irtenbideen berritasuna eta originaltasuna.

c) La innovación y originalidad de las soluciones propuestas, para suministrar los productos, prestar los servicios o ejecutar las obras.

d) Ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikagarriak diren betebeharrak eta azpikontratazioari dagozkionak errespetatzen direla, ez direlarik justifikagarriak merkatukoak baino prezio baxuagoak edo 201 artikulua xedatutakoa urratzen dutenak.

d) El respeto de obligaciones que resulten aplicables en materia medioambiental, social o laboral, y de subcontratación, no siendo justificables precios por debajo de mercado o que incumplan lo establecido en el artículo 201.

e) Edo Estatuaren aldetik laguntza jasotzeko aukera izan duen.

e) O la posible obtención de una ayuda de Estado.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Nolanahi ere, kontratazio organoek baztertu egingo dituzte eskaintzak, baldin eta frogatzen bada ohikoak baino baxuagoak direla, azpikontratazioari buruzko arauak urratzen dituztelako edo ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloan aplikagarriak diren betebeharrak, nazio nahiz nazioarte mailan, indarrean diren sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 201 artikuluan ezarritakoa aplikatzeari buruz.

En todo caso, los órganos de contratación rechazarán las ofertas si comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenio colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el artículo 201 de la LCSP.

Nolanahi ere, lizitatzailleak proposaturiko prezioen edo kostuen maila baxuaren justifikagarriak ez dituela behar bezala azaltzen ulertuko da, osatu gabea denean edo ikuspegi tekniko, juridiko eta ekonomikotik hipotesietan edo praktika desagokietan oinarritzen direnean.

Se entenderá en todo caso que la justificación no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por el licitador cuando esta sea incompleta o se fundamente en hipótesis o prácticas inadecuadas desde el punto de vista técnico, jurídico o económico.

Lizitatzailleak Estatutik laguntza lortu duela eta, eskaintza bat ohikoa baino baxuagoa dela frogatzen den kasuetan, proposamena arrazoi bakar honengatik soilik baztertu ahal izango da, baldin eta hark ezin egiazta badezake laguntza publikoen alorrean erkidegoko xedapenak urratu gabe eman dela delako laguntza. Arrazoi horregatik eskaintza bat baztertzen duen kontratazio organoak horren berri eman beharko dio Europar Batzordeari, esleipen prozedura erregulazio harmonizatuko kontratu bati buruzkoa denean.

En los casos en que se compruebe que una oferta es anormalmente baja debido a que el licitador ha obtenido una ayuda de Estado, solo podrá rechazarse la proposición por esta única causa si aquel no puede acreditar que tal ayuda se ha concedido sin contravenir las disposiciones comunitarias en materia de ayudas públicas. El órgano de contratación que rechace una oferta por esta razón deberá informar de ello a la Comisión Europea, cuando el procedimiento de adjudicación se refiera a un contrato sujeto a regulación armonizada.

Kontratazio mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio organoak lizitatzailleak emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du epean, eta kontratazio mahaia den kasuan,

La mesa de contratación, o en su defecto, el órgano de contratación evaluará toda la información y documentación proporcionada por el licitador en plazo y, en el caso de que se trate de la mesa de contratación, elevará de



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

kontratazio organoari aurkeztuko dio dagokion onarpen edo baztertze proposamena, behar bezala arrazoituta. Inola ere ez da erabakiko eskaintza baten onarpena kontratazio mahaiaren proposamena zentzu horretan behar bezala arrazoituta ez badago.

Kontratazio organoak, lizitatzailleak egindako justifikazioa eta laugarren atalean aipatutako txostenak aintzat hartuta, lizitatzailleak proposatutako prezioen eta kostuen maila baxua behar bezala ez duela azaltzen irizten badu eta, ondorioz, ezohiko balioak sartzen direlako eskaintza ezin bada gauzatu, sailkapenetik kanpo utziko du eta eskaintzarik onenaren alde erabakiko du esleipena, SPKLaren 150 artikularen 1. atalean adierazitakoaren arabera sailkapen hurrenkera kontuan hartuta. Orokorrean, ustez ezohikotasunezko diren eskaintzak baztertu egingo dira, ikuspegi tekniko, juridiko eta ekonomikotik hipotesietan edo praktika desagokietan oinarrituak badira.

Ezohikotasun presuntzioan sarturik egondako enpresa bat kontratuaren esleipendun gertatuko balitz, kontratazio organoak baliabide egokiak ezarriko ditu berau gauzatzeko jarraipen zehatza egiteko, kontratua zuzen betetzen dela bermatzea xedetzat harturik, zerbitzuen, obren edo horniketen kalitatean murrizketarik gertatu gabe.

forma motivada la correspondiente propuesta de aceptación o rechazo al órgano de contratación. En ningún caso se acordará la aceptación de una oferta sin que la propuesta de la mesa de contratación en este sentido esté debidamente motivada.

Si el órgano de contratación, considerando la justificación efectuada por el licitador y los informes mencionados en el apartado cuatro, estimase que la información recabada no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por el licitador y que, por lo tanto, la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales, la excluirá de la clasificación y acordará la adjudicación a favor de la mejor oferta, de acuerdo con el orden en que hayan sido clasificadas conforme a lo señalado en el apartado 1 del artículo 150 de la LCSP. En general se rechazarán las ofertas incursas en presunción de anormalidad si están basadas en hipótesis o prácticas inadecuadas desde una perspectiva técnica, económica o jurídica.

Cuando una empresa que hubiese estado incurso en presunción de anormalidad hubiera resultado adjudicataria del contrato, el órgano de contratación establecerá mecanismos adecuados para realizar un seguimiento pormenorizado de la ejecución del mismo, con el objetivo de garantizar la correcta ejecución del contrato sin que se produzca una merma en la calidad de los servicios, las obras o los suministros contratados.

16. ESLEITZE-IRIZPIDEAK

16. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hona hemen kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren proposamenak balioesteko irizpideak, garrantzia handiena duenetik txikiena duenera zerrendatuta, eta esleitzen zaien haztapenaren arabera:

Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes:

1.- ERA AUTOMATIKOAN BALIOESTEKO IRIZPIDEAK (C artxibo elektronikoan sartu beharrekoak; gehienez 63 puntu)

1.- CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA (a incluir en el archivo electrónico C, como máximo 63 puntos)

1.1 Eskaintza ekonomikoa. Kontratu osoari dagokion eskaintako prezioa: gehienez 48 puntu

1.1 Oferta económica. Precio ofertado para la ejecución de la totalidad del contrato: máximo 48 puntos

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoei dagokien puntuazioaren kalkulua eskaintza horietan oinarrituta egingo da, interpolazio lineala aplikatuz P1 puntuak (beherapen maximoa, puntuazio maximoa) eta P2 puntuak (Oko beherapena, puntuazio minimoa) definitzen duten zuzenean, puntu horiek mugatzen duten segmentuaren barnean. P1 eta P2 puntuak hauek dira:

El cálculo de las puntuaciones de las ofertas económicas, correspondientes a las propuestas admitidas, se realizará en función de aquéllas, mediante interpolación lineal, según la recta definida por los puntos P1 (Baja máxima, Puntuación máxima) y P2 (Baja cero, Puntuación mínima), y dentro del segmento de dicha resta, limitado por ellos. Los mencionados puntos son los siguientes:

P1 - Eskaintza merkeenari dagokiona (beherapen maximoa), berari emango zaion puntuazioarekin, Pmax puntuazio maximoarekin (48 puntu) alegia.

P1 - El correspondiente a la oferta más económica (Baja máxima), a la que se otorgará una puntuación, máxima, igual a P_{máx} (48 puntos).

P2 - Lizitazio neurriari dagokiona, berari emango zaion puntuazioarekin, puntuazio minimoarekin, hau da, formula honen bitartez kalkulatu den puntuazioarekin:

P2 - El correspondiente al Tipo de Licitación, al que se otorgará la puntuación, mínima, que corresponda con arreglo a la fórmula siguiente:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

$P_{min} = P_{max} \times (1 - B_{máx})$. (B_{max} = Beherapen maximoa)

Beherapena (B) honela kalkulatu da: lizitazio neurria ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio neurria. Aipatu den zuzena definitzeko, onartutako oinarritzko eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

1.2.- Exekuzio epean murrizpenak (gehienez 15 puntu)

Irisgarritasun planaren eguneraketa jasotzen duen proiektu teknikoaren exekuzio epea 20 astetan burutzeko ezartzen da.

- Exekuzio epe hori 2 astetan murrizteko konpromisoa hartzen bada, 7,5 punturekin balioetsiko da.
- Exekuzio epe hori 4 astetan murrizteko konpromisoa hartzen bada, 15 punturekin balioetsiko da.

2.- BALIO JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK (gehienez 37 puntu)

Memoria teknikoak: gehienez 37 puntu

Memoria tekniko bat sartuko da, eta bertan zehaztu behar da nola burutuko diren Pleguan zehazturiko zerbitzuak.

Helburuen lorpen aurreikusia baloratuko da, baita lanen kalitate tekniko ere.

Atal honek ez ditu gainditu behar 25 orrialde (alde bakarretik idatzita), DIN A-4 formatuan eta

$P_{min} = P_{máx} \times (1 - B_{máx})$, donde B_{max} es la Baja máxima.

Se entiende por baja (B), la diferencia entre el tipo de licitación y la oferta económica, dividida por el tipo de licitación. Para la obtención de la recta antes definida, se tendrán en cuenta sólo las ofertas base admitidas.

1.2.- Reducción en el plazo de ejecución (máximo 15 puntos)

El plazo de ejecución del proyecto técnico para la actualización del plan de accesibilidad se establece en 20 semanas.

- Se valorará con 7,5 puntos el compromiso de reducir el tiempo de ejecución en 2 semanas.
- Se valorará con 15 puntos el compromiso de reducir el tiempo de ejecución en 4 semanas.

2.- CRITERIOS QUE DEPENDEN DE JUICIOS DE VALOR (como máximo 37 puntos)

Memoria técnica: máximo 37 puntos

Se incluirá una memoria técnica que deberá definir como se llevarán a cabo los servicios definidos en el Pliego.

Se valorará la previsible consecución de los objetivos y la calidad técnica de los trabajos.

Este apartado no superará las 25 páginas (a una cara), formato DIN A-4 en tamaño de letra



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

gutxienez 10 puntuko Arial hizkiarekin.

mínimo Arial 10 ppt.

1) Lehenengo hurbilketa hiri bideak lehenesteko (gehienez 21,00 puntu)

Atal honetan, hiri bideak lehenesteko lehenengo hurbilketa bat proposatuko da, udalerraren egungo fisionomiarekin bat etorritz. Udalerriko guneko altuetara iristeko arazoetara lehenengo hurbilketa.

1) Primera aproximación de priorización de vías urbanas (máximo 21,00 puntos)

En este apartado se propondrá una primera aproximación de priorización de vías urbanas de acuerdo con la fisionomía actual del municipio. Primera aproximación a los problemas de accesibilidad a las zonas altas del municipio.

2) Eman beharreko zerbitzua eta egin beharreko lanaren egitura deskribatzea (gehienez 11,00 puntu)

Lizitatzailleak memoria bat aurkeztu beharko du, eta bertan deskribatuko da, zehatz, egin beharreko azterketaren egitura, aplikatu beharreko lanaren metodologia (plegu teknikoetan ezarritako oinarritzko metodologia garatuz) eta preskripzio teknikoetan zehazten diren ezaugarriak gauzatzeko proposamena.

2) Descripción del servicio a prestar y la estructura del trabajo a realizar (máximo 11,00 puntos)

El licitador presentará una memoria en la que se describirá de forma pormenorizada, la estructura del estudio a realizar, la metodología de trabajo a aplicar, desarrollando la metodología básica establecida en los pliegos técnicos y la propuesta de ejecución de las características que se especifican en las prescripciones técnicas.

Lortu nahi den helburuarekin bateragarriak diren partaidetza mekanismoak proposatuko dira. Irigarritasun Planeko GIS bisualizatzailearentzat eduki beharreko informazioa eta geruzak proposatuko dira.

Se propondrán los mecanismos de participación coherentes con el objetivo perseguido. Se propondrán las capas e información que debiera disponerse para visualizador GIS del Plan de Accesibilidad.

3) Planaren informazioa GIS formatuan sartzeko proposamena (gehienez 5 puntu)

3) Propuesta de incorporación de la información del plan en formato GIS (máximo 5 puntos)



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Informazio geografikoko sistema trukatzeko formatu zehatz bat proposatuko da, bai eta geruza desberdinek eduki beharreko informazioa ere; modu horretan, udalerriko irisgarritasun planaren arabera etorriko diren jarduera neurriak errazago kudeatuko lirateke.

Se propondrá un formato concreto de intercambio de sistema de información geográfica, así como la información que debieran contener las diferentes capas, que faciliten la gestión de las medidas de actuación que dieran lugar según el plan de accesibilidad del municipio.

Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzak edo gehiagok puntuazio bera badute, kontratuaren xedeari loturiko irizpideak aplikatuko dira, 2017ko SPKLko 147. artikuluari jarraikiz. Horrelako irizpiderik ez badago, berdinketa irizpide sozial hauek aplikatuz hautsiko da (irizpideak eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren bete behar dituzte enpresek):

Cuando tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas se aplicarán los criterios vinculados al objeto del contrato, que se señalen, en su caso, conforme al artículo 147 de la LCSP 2017, y en su defecto, el empate se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

- Enpresen langile-taldean desgaitasunak dituzten edo gizarteak baztertuta dauden langileen portzentajea handiagoa izatea. Enpresek portzentaje bera badute, desgaitasuna duten langile finko gehien edo gizarteratzeko hartutako langile gehien dituen gailenduko da.

- Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.

- Enpresen langile-taldean aldi baterako kontratuen portzentajea txikiagoa izatea.

- Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.

- Enpresen langile-taldean emakume-portzentajea handiagoa izatea.

- Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.

- Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketa ez bada hausten, zozketa egingo da.

- El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen denean aurkeztu behar dituzte lizitatzailleek, ez lehenago.

La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.

17. DOKUMENTAZIOA ERREKERITZEA

17. REQUERIMIENTO DE LA DOCUMENTACIÓN

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailari errekerimendua egingo dio aginduzko honako agiri hauek aurkezteko gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 150.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz:

El licitador que haya presentado la mejor oferta será requerido por el Órgano de Contratación para que, en plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la siguiente documentación justificativa, de conformidad con lo establecido en el artículo 150.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público:

1.- Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten dokumentuak. Nortasuna honela egiaztatuko da:

1.- Documentos acreditativos de la personalidad jurídica del empresario. Para acreditar la personalidad deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a.1. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eratze-eta, hala egokituz gero, aldatze-eskrituraren bidez, Merkataritza Erregistroan izena behar bezala emanda, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez, aplikatu dakioken merkataritza-legediaren arabera izen-ematea baldagarria bada. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren, estatutuen edo sorrera-aktaren bidez bermatuko da. Agiri horretan jasota egongo dira haren jardueraren arautzen duten arauak, behar balitz, dagokion erregistro ofizialean erregistratuak.

a.1. Si el licitador fuera persona jurídica, la acreditación se hará mediante presentación de la escritura de constitución o, en su caso, de modificación, inscrita en el Registro Mercantil, y mediante el número de identificación fiscal, cuando este requisito fuere exigible conforme a legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional. En dicho documento deberán constar, si así se requiriese, las normas por las que se regula su actividad, inscritas en el registro oficial correspondiente.

Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu espainiarrak ez badira, lanbide

La capacidad de obrar de los empresarios no españoles de Estados miembros de la Unión



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

erregistroren batean erregistratuta daudela egiaztatu beharko dute, estatu horretako legediak baldintza hori eskatzen badu.

Europea se acreditará mediante comprobante de su inscripción en algún registro profesional, si así lo exige la legislación de dicho estado miembro.

Atzerriko gainerako enpresariak enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.

De los demás empresarios extranjeros, con informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.

a.2. Lizitatzailleak bere izenean badihardu, nortasun-agiri nazionala edo dagokion estatuko baliokidea aurkeztu beharko du.

a.2. El licitador que actúe en su propio nombre deberá presentar su documento nacional de identidad o el documento equivalente del estado correspondiente.

2.- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak: proposamenak ez badu lizitatzailleen izenperik, eskaintza izenpetu duenaren edo izenpetzen dutenen alde luzatutako ahalordea sartu behar da, ahalduen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eskuetsiarekin batera.

2.- Documentos acreditativos de la representación: cuando la proposición no aparezca firmada por los licitadores deberá incluirse el poder otorgado a favor de quien o quienes suscriban la proposición junto con una copia auténtica del Documento Nacional de Identidad del o los apoderados.

3.- Lizitatzaillearen kaudimen ekonomikoa egiaztatzen dutenak, era hauetako gutxienez bide baten bitartez egiazta daiteke:

3.- Documentos acreditativos de la solvencia económica del licitador, se acreditará al menos por uno de los medios siguientes:

a) Urteko negozio bolumena, edota negozioen urteko bolumena, kontratuak hartzen duen eremuan, erabilgarri dauden azken hiru urteetako ekitaldi onenari dagokionean. Urteko gutxieneko bolumena 38.600,00€koa da.

a) Volumen anual de negocios, o bien volumen anual de negocios en el ámbito al que se refiera el contrato, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles. El volumen mínimo anual es de 38.600,00€.

b) Lanbide arriskuengatik kalte-ordainen aseguru bat izatearen frogagiria, agiri honetan

b) Justificante de existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales por importe igual o superior al exigido en el



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

eskatzen duten zenbatekoaren berdina edo presente pliego. handiagoa.

c) Ondare garbia, edota aktiboen eta pasiboen arteko ratioa, urteko kontuak onartzeko obligazioa betez azken ekitaldi ekonomikoa ixtean, agiri honetan eskatzen duten zenbatekoaren berdina edo handiagoa.

c) Patrimonio neto, o bien ratio entre activos y pasivos, al cierre del último ejercicio económico para el que esté vencida la obligación de aprobación de cuentas anuales por importe igual o superior al exigido en el presente pliego.

4.- Kaudimen teknikoaren edo profesionala egiaztatzen dituzten agiriak, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko direlarik:

4.- Documentos acreditativos de la solvencia técnica o profesional, con la presentación de la siguiente documentación:

- Azken **bost** urteotan eskainiriko kontratuaren xedeari loturiko zerbitzuetan – **udalerriak** irisgarritasun planak idaztea -, eta hor sartuko dira zenbatekoa, egunak eta horien onuradun publiko nahiz pribatuak, garrantzitsuenetan exekuzio onaren ziurtagiriarekin batera.
- Kontratua exekutatzeke erabiliko diren baliabide pertsonalei eta materialei buruzko zerrenda, kontratistarekin duen lan-harremana egiaztatuko delarik.
- Enpresariaren eta enpresa zuzendaritza kideen eta titulazioa akademiko eta profesionalak, eta zehazki, kontratua egikaritzeko duten arduradunen pertsonena.
- Relación de servicios prestados relacionados con el objeto del contrato – redacción de planes de accesibilidad **municipales** - realizados por la empresa en el curso de los últimos **cinco** años que incluya importe, fechas y beneficiarios públicos o privados de los mismos, acompañado de certificados de buena ejecución para las más importantes.
- Lista de los recursos personales y materiales que se vayan a utilizar para la ejecución del contrato, y acreditación de la relación de trabajo con el contratista.
- Titulaciones académicas y profesionales de la persona empresaria y del personal directivo de la empresa y, en particular, del personal responsable de la ejecución del contrato.

SPKLren 90.4 artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, kontratista sortze berriko enpresa denean, bost urte baino gutxiagoko antzintasuna dutenak, horren kaudimen

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 90.4 de la LCSP, cuando el contratista sea una empresa de nueva creación, entendiéndose por



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

